

KUDEAKETA AURRERATUA



# EUROPAKO ASTEA

SEMANA EUROPEA

# GESTIÓN AVANZADA

# 14-28

URRIA- OCTUBRE  
**2026**

**32** EDIZIOA - EDICIÓN

## Astean Nola parte hartu

Antolatzaile gisa parte hartu nahi duten erakundeek proposamen bat aurkeztu beharko dute, **jardunbide egoki sendo batean edo esperientzia arrakastatsu** batean oinarritua, edizio honetako gai nagusiarekin bat datorrena: **Lehiakortasun iraunkorra eta kudeaketa: balioak, talentua eta teknologia.**

Kudeaketan eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatutako batzorde batek jasotako proposamenak ebaluatuko ditu, eta irizpide hauek balioetsiko ditu: berritasuna, hedapen-maila, lortutako emaitzak, zeharkakotasuna eta eragina.

Proposamenak jardunbide egokiaren, parte hartzen duten erakunde edo hizlarien eta emaitza nagusien deskribapen argia izan behar du (hori guztia izena emateko formularioan jaso behar da).

Erakunde bakoitzak bere baliabideekin antolatuko du bere ekitaldia, formatua (presentziala, online, streaming...) eta egiturarik egokiena (hitzaldia, mahai-ingurua, elkarrizketa, etab.) aukeratuz.

Batzordearen erabakia uztailean jakinaraziko dute. Astearen helburuekin bat datozen ekitaldiak baino ez dira sartuko programazioan.

✦ Urriaren **14**an ez da ekitaldirik programatuko inaugurazio ekitaldia errespetatzeko.